

steilas en informazio elektronikoa • 2017ko apirilak 24
24 de abril de 2017

MAIATZAREN 3AN ORDEZKAPENEN ESLEIPEN TELEMATIKOA HASIKO DA

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi digu datorren maiatzaren 3an Lanpostuen Esleipen Telematikoak aplikatzen hasiko direla. (LET). Hauek dira aldaketa nagusienak:

-Hemendik aurrera **ez da telefono bidezko deialdirik izango**. Esleipenak telematikoak izango dira.

-**Astelehen, asteazken eta ostiralero**, 13:00etan, **lanpostuen esleipen telematikoak** izango dira. Parte hartzeko epea hurrengo eguneko 10:00ak arte irekita egongo da (ostiraletan berriz, deialdia hurrengo asteko asteleheneko 10:00ak arte irekita mantenduko da).

-Bi **parte-hartze** mota egongo dira: **nahitaezkoa** (zerrendan aurreko postuetan daudenak) **eta borondatezkoa**. Nahitaezkora uko egitekotan izengaia "ez prest" egoerara pasako da (berriro "prest" egoerara itzuli ahalko da erregistroan instantzia bat sartuz).

-Hainbat plazetara parte-hartzeko aukera izanez gero, norberaren lehenetsunaren arabera ordenatu ahal izango dira.

-Parte-hartzeko **Nafarroako Ogasuneko PINa izatea nahitaezkoa** da. Ez izatekotan interneten bidez eska daiteke.

[Hezkuntzako web orrialdera lotura zuzena](#)

Steilasek esleipenetan aldaketa honen inguruan irakurketa positiboa egiten du, azken batean sindikatuen eskaera historikoa zen eta. Hala ere, gure ustez egokiagoa izango zen parte-hartzea kasu guztietan borondatezkoa izango balitz.

EL 3 DE MAYO COMENZARÁ LA ADJUDICACIÓN TELEMÁTICA DE SUSTITUCIONES

Desde el Departamento de Educación se nos ha informado que el próximo 3 de mayo comenzará a aplicarse la Adjudicación Telemática de Plazas (ATP). Estos son los cambios más importantes:

-A partir de ahora **no habrá llamamientos telefónicos** para cubrir las sustituciones. Las adjudicaciones serán telemáticas

-Todos los **lunes, miércoles y viernes** a las 13:00 horas habrá **convocatorias telemáticas de plazas**. El periodo de participación permanecerá abierto hasta las 10:00 horas del próximo día (en el caso de los viernes, se prolongará hasta las 10:00 del lunes)

-Habrá dos tipos de **participación; obligatoria** (para las personas que están en los primeros puestos de la lista) **y voluntaria**. En caso de no optar a la obligatoria se pasará a situación de "no disponible" (se podrá revertir presentando una instancia por registro).

-En caso de poder optar a varias ofertas, se podrán solicitar por orden de preferencia.

-Para participar **es necesario disponer de la clave PIN de Hacienda de Navarra**. En caso de no disponer de ella, se puede solicitar por internet.

[Enlace directo a web de Educación](#)

Desde **Steilas** valoramos de manera positiva este cambio en las adjudicaciones, dado que era una petición histórica de los sindicatos. No obstante, hubieramos preferido que la participación fuese voluntaria en todos los casos.